

Hondarribiko artisau arrantzale erkidegoa, 1950-2000: turismoarekiko 50 urtetako bizikidetza

(The community of artisan fishermen in Hondarribia,
1950 – 2000: 50 years of common life with tourism)

Anduaga, Jaime

Eusko Ikaskuntza

Miramar Jauregia - Miraconcha, 48

20007 Donostia

BIBLID [1137-439X (2002), 21; 27-38]

Proiektu honetan aurkeztu nahi dut Arrantza Antropologi Ikerkuntzaren barruan Hondarribiko artisau-arrantzale erkidegoa eta bertan garatutako turismo-gertakarien arteko harremanetan zehar emandako gizar-teraldaketaren zioen ikerketa. Hondarribikoa, askoz zabalagoa den egoeraren isla da, Baionatik Bilborai-noko euskal itsasertzeari dagokiona alegia. Kostaldeko eremu geografiko honetan, turismoaren garapena, konurbazio egitasmoak, arrantzagintzan gero eta arruntagoa den ekoizpen era industrial, baliabide bioti-koaren endekamendua, baxurako arrantzagintzaren krisialdia etab. dira nagusi diren egoeraren ezaugarri batzuk. Alderdi honetatik, nire proposamena, disziplinarteko ekintzarako eremu akademiko berria osatzea da.

Giltza-Hitzak: Gizarte aldaketa. Turismoa. Artisau arrantza. Gatazka. Hondarribia.

Este proyecto de investigación en Antropología de la Pesca accede al estudio de las razones del cambio social partiendo de las relaciones entre la comunidad de pescadores de bajura de Hondarribia (pesca artesanal) y el fenómeno turístico desarrollado en la localidad. Muestra de una realidad que se desarrolla en la costa vasca, Baiona-Bilbao, afectada por condiciones semejantes: Desarrollo turístico y de modos de producción industriales, conurbación, crisis del sector pesquero de bajura, degradación de recursos bióticos, etc.

Palabras Clave: Cambio social. Turismo. Pesca artesanal. Conflicto. Hondarribia.

Ce projet de recherche en anthropologie de la pêche mène à l'étude des raisons du changement social à partir des relations entre la communauté de pêcheurs d'Hondarribia (pêche artisanale) et le phénomène touristique développé dans la localité. Exemple d'une réalité qui se développe sur la côte basque, Bayonne-Bilbao, touchée par des conditions semblables: Développement touristique et de productions techniques industrielles, conurbation, crise du secteur de pêche artisanale, dégradation de ressources biotiques, etc.

Mots Clés: Changement social. Tourisme. Pêche artisanale. Conflit. Hondarribia.

Izenburu honen azpian proiektu honek jasotzen du gizarte eraldaketari buruzko ikerketa antropologikoaren tesi baten asmoa.

Ikerketa-eremu fisikoa Hondarribia (Gipuzkoa) da, eta azkeneko berrogeita hamar urteotan eraldaketen sujeto/objeto izan den kostaldeko herri hone-tako artisau arrantza erkidegoa, ikerketaren objektua.

Lan honen helburu orokorra frogatzea da, gizarte harremanen ereduari jasotako turismoaren eraginak eta artisau ekoizpen eraren eraldaketaren artean, *lotura hertsia badela*.

Arrantza kultura honi ere nolabaiteko egitura orekatua egotzi lekiok eta honetan turismoak, -gizarte azpisisistema gisa- eragindako eraldaketak duen ustezko engaiamendua gertakari asaldatzailatzat jo dezaket. Testuinguru honetan ekologia politikoa alde batetik eta bestetik antropologia ekonomikoa eta sozialaren metodologiak baliaturik, ikertzeko estratejia aurrera eramango dut.

Suposatzen dut beste fenomeno batzuek ere egoera horretan badutela beren eragina, baina ikerketa honetan balizko hauetatik guztietatik haxe da- Turismoa- oinarri gisa hartuko dudana.

Kontutan hartu behar dugu Euskal Herrian, orokorrean itsas antropolo-gian eta zehazki arrantza antropologian egindako ikerketen artean ez dela sekulan jorratu turismoaren eragina. Eta azkeneko urteotan Hondarribian ber-tan turismoaren agerpenak eta finkapenak izan duten gorakada, aski arrazoia da gaia aintzakotzat edukitzeko.

Bestaldetik Baiona-Donostia konurbazio egitasmoaren barruan dagoen *Txingudi* lekuko proiektuan, Hondarribiaren izaera turistikoak bete behar duen zereginak, arlo orokorra eta lekukoaren arteko harremanak interpretatzera narama.

Beraz, etengabe aldatuz joan den erkidego batean, eraldaketaren alde berria agertzen denean, antropologiak zer esanik duela pentsatzea, kohe-rentzia-erantzulearen ariketa da, batez ere, aldaketa sozialaren garabideak ulertzeko parada hain argia izanik.

Arrantzaren ekoizpen sistemaz eta etekinaren banaketa sistemaz osatu-tako faktorea, arrantza-gizarte ordenu ereduaren ahalbide-baldintza da, haiek ahultzen diren neurrian gizarte ordenu tradizionala ere ahultzen da, bai-na alderantziz ere bai. Haatik, Hondarribian ematen den egoeran bada beste faktore bat nabarmentzen dena, gizarte portaeran turismoaren bidez nagu-sitzen den eredu alegia. Eta faktore honetan ematen diren aldaketak ditut abiapuntua beste arloan emandako ahalbide-baldintzak adierazteko.

Bi faktoreok, aipaturiko erkidegoarengan duten eragina, hiru harreman-arlo ezberdinetan bereizten ditut:

- Arrantzale eta turistaren arteko lehen eta oraingo harremanen nolakotasuna.
- Ekoizpen-kontsumo eredua eta erreprodukzio eredu ekonomikoen arteko harreman motak.
- Ekosistema eta espazio publikoari buruzko kontzepzio eta erabilera ezberdinen arteko aldeak.

Bi faktoreen arteko desorekari aurre egiteko emandako erantzuna, egokitzapen prozesuaren barruan dagoela pentsa nezake, betiere gizarte sistemen erreprodukzioa ziurtatzeko asmoz, baina, horretarako erabilitako baliabideak, aski ote dira jasotako presioa orekatzeko? Pentsa dezagun egoera berezia hau krisialdi ekonomikoaren giroan garatzen ari dela eta honetan turismoaren eragina gizarte eraldaketaren katalizatzaile gisa aritzen dela.

Antropologia, orokorrean, gizakia eta bere inguruaren arteko harremanak eta baita honekiko egokitzapen maila ere ikasteko gai dela esan dezakegu, disziplina honen nagusitasuna frogatuta baita dagoeneko. Ekonomia, politika, sinbolismo, ekologia, gizarte aldaketa, kultura, marginazioa, boterea... disziplina honetan arrunt normala bihurtu diren gaiak dira, baina hori ez da txirripaz hala gertatu, horretarako mota esberdinetako eskarmentuak eta batez ere gizarte arazoez kontzientzia edukitzea beharrezkoa izan dira.

Halako zerbait gertatu zen itsas antropologiarekin ere, antropologia soziala eta ekonomikoaren azpiero bat bihurtu baitzen zenbait egileren ardurari esker eta gaur egun nortasun propioa daukan disziplina dela esan dezakegu.

Disziplina hau, ekonomia, politika, ekologia, sinbolismo eta abarretik ikas dezakegu baina Jose Pascualekin batera etorri pentsatzen dut, orain arteko bere berariozkotasuna, gai honetaz arduratzen diren lan talde berezituaren esistentzia, ikasgaiaren ezaugarri berezietan baino oinarrituagoa dela.

Arrantza antropologiak gizarte aldaketaz oraindik ere gauza asko esan behar du baina ezin dugu jarraitu jarrera kulturalista edo antropologia ekonomiko edo ekologikoaren ildotik soilik, ez badugu nahi gure emaitzak behin eta berriro errepikatuta ikusi. Gero eta beharrezkoagoa ditugu ikuspegi holistik egindako ikerketak; beharbada irismen ertaineko teoriak garatzen hasi behar ko genituzke, Yvan Bretonnek dioenez, beharrezkoa da corpus teoriko-analitiko koherente bilatzea.

Antropologia Sozialarekin zer ikusi daukan gizarte aldaketaren garabideen testuinguruan, Hondarribiko arrantzale erkidegoaren ekoizpen gizarte-harremantetan nola eta zergatik ematen diren eraldaketak ikusteko, hartu behar izan dut beste aldagai bat, aipaturiko erkidegoarekin kontrasta nezakeena alegia, eta hori, esanda dago, turismoa da. Bestaldetik ikerketa burutzeko aukeratutako denboraldia 1950 eta 2000. urteen artekoa izan da, eta kronologikoki laburra bada ere pentsatzen dut denboraldi interesgarria dela zenbait arrazoigatik. Horretan, oparoaldi eta krisialdi ekonomikoa agertu, teknologiaren nagusitasu-

na finkatu, turismoaren hazkundera nabaritu, delako globalitate-fenomenoaren garapena zirrikitu guztietan orokortu eta kapitalismoaren eragina ekonomiaz jabetu da. Egoera honek kostaldeko jarduera honetan ere bere eragina izan du baina bere garapenak, beharbada, bide bereziari jarraitu dio.

Egoera honetan, beraz, testuinguratuko dut arrantzale erkidegoa eta turismoaren fenomenoaren arteko hartu-emanen ikerketa.

Ez nioke kutsu kulturalistarik eman nahi nire behaketa honi, haatik, zenbait gertakariri buruzko konstatazioaren interpretapena hurbil daude jarrera honetatik. Hau diot zeren Hondarribian, beste toki askotan sortu den egoera ekonomikoaren errepikapena eman bada ere, honek ez du esan nahi arrazoi-garabide berberatik igaro denik, ezta egoera horri emandako erantzuna berbera izan behar denik ere. Pentsatzen dut tokiz-toki badirela erantzunak baldintzatzen dituzten berariazko ezaugarriak, hala ere ez dut Hondarribiaren egoera salbuespentzat hartzen.

Bertako arrantzale-erkidegoak bere nolabaiteko egokitzapen garabidea izan duelakoan nago eta honetan berezko erantzun sorta indarrean jarri behar izan bide duela. Hau da, egoera ekonomiko-merkantila globalizatzailearen aurrean aurkeztu dituen erantzunak, bere jarduera ekonomikoaren berarioz-kotasunak ahalbideratzen dituen egokitzapen baldintzetan oinarrituta daudela, eta baldintza hauek kultur ezaugarritzat hartzeak antropologia kulturalaren barruan ari naizela pentsatzera eramanez gintzake.

Alabaina, suposatu behar dugu ekonomi-sistema kapitalistak eragindako egoerei, arloz arlo, jarrera ezberdinez erantzuten zaiela baina leku ezberdinetako arlo edo jarduera ekonomiko berdinetan erantzun berdinak edo sor litezkeela. Baina hauek berdinak dira merkatu sistema kapitalistak erantzun horiek hartzera bultzarazten duen neurrian. Kontuan hartu behar dugu ustezko ekoizpen-gizarte harreman aurrekapitalistak jarduten duen erkidegoaren garapena, sistema kapitalistaren beharren arabera dela. Hortaz nik bereztuko nituzke bi motatako egokitzapenerako erantzunak:

Bata erkidego bezala ematen dena, non eredu aurreindustrialeko jarduerak ekonomikoa, kapitalismoaren eraginez desagertuko litzatekeen. (Hemen ikusi beharko genuke, erakunde publikoak, ekoizpen-bide berriak eta gero eta handiagoak eskuratzeko zenbait arrantzaleri dirulaguntza emateak, zeri erantzuten dion).

Bestea, arrantzaleak, banako bezala ematen duena, non erantzuna, egoera ekonomikoaren ustekabeak orekatzeko saiakera gisa agertzen den. Giza-banakoak arrantzagintzan oinarritzen du bere identitatea, eta honen iraupena jarduerak ekonomikoarenaren menpe dago, beraz erkidegoaren erreprodukzioa ere jarduerak ekonomikoarenaren menpe egongo litzateke.

Isidoro Morenok dioenez: *Las características del proceso de trabajo dentro de las relaciones sociales de producción son la base de la ideología y de*

*la cultura*¹. Horren arabera pentsa daiteke lan prozesuaren ezaugarri hauek aldatzea lortuz gero ideologia eta kultura ere automatikoki aldatuko zirela. Azken finean lan-kultura osatuta dago ezagutza-ereduaz eta arau moralez eta hauen bidez gizakiak bidera eta motibatzen du bere lana.

Horrela, ideologia eta kultura bera zuzenean eraginduta geldituko ziren eta ekoizpen-gizarte harremanak, zeharka. Testuinguru honetan, kultura, lurralde eta garai batean, egitura ekonomikoaren inguruan sorturiko jarduera egokitzailea izango litzateke.

Eta ez dut zalantzan jartzen toki askotan horrela gertatu dela, baina pentsatzen dut aipatutako ezaugarri horiek, ideologia eta kulturaren oinarriak izateko beharrezkoak direla, baina ez nahiko. Hondarribian aldaketaren garabidea oso bestelakoa izan da nire ustez. Pentsatzen dut turismoak, ekoizpen-sistema kapitalistaren azpisistema gisa, arrantzale-erkidegoaren inguru publikoan ezartzeko behar adinako gaitasuna izan duela eta hemendik eragin duela bertako ekoizpen era, (Materialismo historikoren ildotik Rubio-Ardanazek horrela definitzen du ekoizpen era: *...el modo de producción no puede ser definido solamente como estructura económica de la sociedad, sino que abarca su totalidad social y es la estructura global, compleja y dinámica...*)² Hau da, Godelierren azpiegitura eta gainegitura, ekoizpen gizarte harremanak eta gizarte harremanak hurrenez hurren.

Azken finean planteiatzen ari naizena da gizarte ordenuaren ereduaren aldaketak ekoizpen gizarte harremanen eraldaketa dakarrela eta honekin batera ekoizpen bideetarako irispidea eta erreproduziorako baldintzak ere bai, horrela eta Wolfek dionari jarraituz, hau da, aberastasuna ekoizpen bideak eskuratu arte ez dela kapital bihurtzen, horrela bada, Hondarribiko arrantzale-erkidegoan, kapitalari bide emateko garabidea, ekoizpen eraren alde ekonomikoan baino gizarte harremanen arloan emandako aldaketengatik abiatu dela. Hau da, ekoizpen sistema kapitalistarekiko artikulagunea finkatzea dela aldeaz aurretiko urratsa. Ideologikoki, gizartea horretarako "prestatzea", hain zuzen. Gizarte egitura eta ekoizpen-gizarte harremanak ertsiki lotuta baitaude.

Kontuan eduki behar dugu egitura ideologikoak, gizabanako eta honen esistentziarako baldintzen artean, lotura jakina daukala.

Honek denak ez du esan nahi orain arte arrantzaleek merkatu harremanik izan ez dutenik, bai, ordea, hauek bakarrik (merkatu harremanak), erkidegoa, ekoizpen garabide kapitalista-teknologikoan sartarazteko behar adinako eraginik – edo kasuz-kasu, beharrik- eduki ez dutela.

1. MORENO, I. "Globalización, ideologías sobre el trabajo y culturas del trabajo", *Areas*, 19, 17-32 orr.
2. J. A. RUBIO-ARDANAZ, 1997: 45.

Ekoizpen-gizarte harremanak gizarte harremanen mota bat da eta haue-tako batean emandako gertakariak, bere baitan ezezik besteetan ere ondorio zuzena sortarazten du.

Hondarribiko flota baxurakoa da, itsas bazterrean jarduten duena alegia (frexkotan). Flota hau bi taldetan bananduta egonik: “Karrerakoak” edo *zer-ko-bolintxe* artea erabiltzen dutenak (50-150 arteko TRBko 30 itsasuntzi, batz bestea) eta “Legatzatakoak” amuz aritzen direnak (20-50 arteko TRBko 16 itsasuntzi gutxi gora-behera). Hauek denek diote artisau arrantzagintzan ari direla, berea, arrantza selektiboa delako eta hauxe da, beste toki askotan artisau arrantzari buruz egindako ikerketetan agertzen den artisau arrantza-gintzaren definizioaren kontrasterik nabarmenena (EMIC ikuspuntutik).

Rubio-Ardanazek, Esteban Puente aipatuz, dio, artisau arrantzagintza, plataforma kontinentalaren eremuan burutzen den iharduera erauztailea dela. Hor jarduten duten itsasuntziak txikiak dira, 10 tnko eta 100 HPkoak baino txikiagoak alegia. Untzi bakoitza ekoizpen-bide berezia izanik arrantza mota honen beste ezaugarri bat da erabiltzen diren teknikak: palangrea, nasak, *currican* eta sare ezberdinak: tresmallo edo enmalle delakoak. Beste antropologo batzuentzat artisau arrantzagintza eta arrantzagintza industrialen arteko aldeak untzien TRBan datza: 100 TRBra arte aurreindustrialak (artisau eta baxurakoak) eta 100 TRBtik gorakoak industrialak³. Beste batzuk, berriz, alde hori kokatzen dute, lan-egoera, lan banaketa eta helburu ekonomikoen ezaugarrietan⁴, hau da nekazal munduan, edozein baserritan eman daitezke-en egoerekin parekatuz.

Dena dela pentsatzen dut ez dela alde zurririk terminu hori finkatu beharrik. Terminu hori finkatzerakoan kontutan eduki behar dugu ekoizpen era, hau da, azpiegitura ekonomiko-ideatikoa (ekoizpen harremanak eta erreprodukzio baldintzak) eta horixe da hain zuzen proiektu honen ikerketaren zutabe bat. Turismoaren eraginak era ezberdinez joko ditu erkidego bereko aldagai ezberdinak, noski baietz! Baina ikerketa burutu arte ezin dut esan nolakoa diren arrantzale-erkidego adarrak eta beren ekoizpen erak, ezta artisau edo industrialak erakoak diren ere. Gainera, pentsatzen dut sailkapen eza horrek ez dela inolaz ere oztopatuko lan etnografikoa.

Intuitiboki, susmatzen dut askoz garrantzitsuagoa dela erkidego horretan familien arteko botere harremanak ikustea, uste dut azpisisistema hori nahiko estratifikatuta dagoela, botere espazio publikoaren banaketa itsasuntzien inguruan sortutako botere ekonomikoaren araberakoa bide da. Uste horretan ikusi behar da joera ezberdinen artean nola planteiatzen dira erreprodukzio-rako baldintzak zeren dinamika honetan agertuko zaizkit eragin exogenoen aurrean planteiatutako egokitzapenerako estratejiak.

3. MONTERO eta RODRIGUEZ, 1989, 70 or r.

4. GARCÍA F., MONTERO LLERANDI, 1985: 113-117 eta J. PASCUAL FERNÁNDEZ, 1991: 218.

Prozesu edo garabide horretan eta merkatu ekonomia barruan, batzuen postura izango da teknologia eta ekoizpen kapitalistaren ereduaren alde (Batez ere gaur egungo krisialdi sasoiari) beste batzuek, berriz, seguraski joko dute iturri ekonomiko anitzaren alde, beraz ikusten dut nolabaiteko aniztasuna izan daitekeela eta denak elkarrekin esistitu daitezkeela, baina edozein kasutan kontuan eduki behar dugu nolakoa den sistema beraren (erkidegoaren) erreproduzitzeko gaitasuna, zeren zenbait untziren teknifikazio horren azpian ez da, bada, bilatu behar bakar batzuen baliabideetarako irispide bereizgarririk?

Beharbada ez direla arrantzale guztiak beren ekoizpen-bideen jabeak baina direnak arrantzaleak ere dira (Hondarribian behinik behin armadore oro arrantzaleak dira) eta teknifikazioa izan daiteke lehiakidetasunerako baliabidea. Hemen Carol Smithengan oinarrituta bereiztu behar ditut bi egoera ezberdinak:

Alde batetik ekoizpen-bidea eta bestetik ekoizkinaren merkatalgintza. Arrantzale batzuk ekoizpen bideren jabe dira baina ekoizkina, bentan fokalizatu behar du merkaturatu eta birbanatzeko. Hemendik aurrera bere lanaren emaitza, aldeztu aurretik jarritako prezioen merkatu-sisteman sartzen da, berak inolaz ere kontrolatzen ez duen sistema alegia, eta sistema honen kontrolean agertzen da gizarte estratifikazioaren printzipioak.

Arrantzaleen artean, teknologia eta ekoizpen bide gaituagoak direla eta estratifikazio maila agertzen bada, (ekoizpen eremuan) merkatu eremutik erabat kanporatuta dagoen sisteman gizarte estratifikazioa agertzen da.

Niretzat, herrian agertzen den elite kapitalistaren banaketa espazialak merkatalgintzaren maila eragiten du. Arrantzalea, bere ekoizkina eta ekoizpen eraren trukean, elite edo azpisistema arrotzentzako diseinatutako hiri bat hartzera behartuta dago, eta trukaketa honetan, esplizitoki, agertzen da estratifikazioa. Honek, banaketa sisteman du oinarria, eta merkataritza sistema kapitalistak, non salgaiak ezezik bizimoduak, ideiak, pertsonak, natura, eta lana ere merkatalizatzen diren, bideratzen du banaketaren merkatal logika.

Egoera honen aurrean esan nezake arrantzaleari aukera gutxi gelditzen zaiola, ezin dut ukatu, ordea, garabide honetan arrantzaleak dituen protagonismoa, egia da gogorki eraginduta eta baldintzatuta dagoela baina ez dugu erori behar halako determinismotan. Arrantzaleak hartzen dituen erabakiek ez ote dute inolako zer ikusi zuzenarik kapitalismoaren sartze (motel edo arin) horrekin? Nik baietz pentsatzen dut.

Hortaz, erkidegoaren barruan agertzen diren ekoizpen era ezberdin hauek eta alde ideatikoaren ikuskapenaren bidez (M. Godelierren zentzuan hartuta) espero dut harrapatzea erabaki hartzeko eran -jokamolde kontzientetzat hartuta- dauden botere harremanen tira-birak.

Eta turismoak, nola joka dezake bere jardura esparru berezi honetan?

Lehenik eta behin esan nahi dut turistaren estereotipoak ez du zer ikusirik Hondarribian agertzen diren bisitariekin, horregatik hemen “turista” diodanean esan nahi dut lekualdaketa boluntarioa egiten duen zibilizazio industrialari dagokion pertsonaia dela. Beti ere bereiztuz “epe luzerakoa” eta “noiz behinkakoa”.

Berrogeita hamar urteotan Hondarribiko turista mota asko aldatu da. Gizarte-elite batetik (noblezia, eta goi mailako burgesia) ertaineko gizarte mailara itzuli da, hau da, miresletik edo, kontsumitzaileira eta hori posible izan da zabalkuntza ekonomikoa, kulturala, komunikaziozko eta sozialari esker. Datu zehatzarik izan gabe ausartzen naiz esatera Hondarribiko 6.000 etxebizitzatik 2.000 hutsik daudela, hauek delako bigarren egoitzakoak direlarik, hau da, bertako bisitari askok izaera errepikatzaile finko daukatela eta bere egonaldiak ez duela antzik sasoiko turistarenarekin

Pentsatzen dut turismoa ez dela jarduera bat baizik eta sasoiko gizarte fenomenoak osatzen duen azpisistema bat eta honetan nolako bisitaria diren jakiteak garrantzia badauka.

Egia da oraindik egiteke dagoela Hondarribiko bisitariari buruzko ikerketa estatistiko sakona. Jende multzo, samaldaka dabil baina ez diote galdetu zer nahi duen, zenbat denbora gelditzen den, zer eta zenbat uzten duten... Ez dakigu zenbat kostatzen eta nolakoa den, etab, etab. Esan nahi dut, badela horrekin batera dihoan hirigintza-garapena eta baita konpromezu administratibo sakona, hiriaren diseinu arkitektoniko eta espazioen banaketan, baina esplizitoki ez da kontuan hartzen bertan emandako eraginez.

Turismoa definitzen duen ezaugarri bat da, ez dela hautematen era zuzenean baizik eta bere ondorioen bitartez. Esanda dago turismoa azpisistema dela eta horregatik honen ondorioek ez diote erantzuten denbora jakin batean emandako zio multzo bati, ondorioak edo eraldaketak azpisistema horren garapenean suertatutako gertakizun heterogeneo kate batean azaltzen dira, pixka-pixkanaka, metatze progresibo eran.

Hondarribian bi izan dira arlo eraginduak: alde batetik arlo fisikoa eta bestetik soziokulturala, baina ez dugu ahaztu behar arlo ekonomikoan daukan eragina, azken finean herri harkorra da turismoak “kontsumitzen” duen produktua.

Neomarxismoak erakutsi digute gizarte aurrekapitalistetan ekoizpen-gizarte harremanak ez daudela oinarriturik harreman ekonomikoetan bakarrik. Erljioa, ahaidetasuna edo politika dira ekoizpen-bideetara iristeko beste motatako harremanak era berean eta antzeko norabidetik turismoak sustatzen dituen harremanak ere horretarako gai dira. Baina horretarako krisi ekonomikoaren ingurua beharrezkoa du. Hala gertatu zen 70eko hamarkadan Donibane Lohitzunen ere bai.

1969an J. Bertolinok horrela adierazten zuen Donibaneko arrantzaleen egoera turismoaren aurrean:

La pêche est pour beaucoup une question de vie ou de mort. Si le tourisme apporte, 3 mois par an, une opulence superficielle, qui profite surtout aux hôteliers et aux commerçants, ainsi que l'allégresse trompeuse des danses folkloriques, interprétées par des troupes professionnelles, et un exotisme sur commande, la vocation profonde de St-Jean-de-Luz reste la pêche, cette pêche qui, jusqu'à ce jour, a nourri les plus humbles, les plus déshérités, les plus basques des Luziens, auxquels l'argent des estivans n'est pas destiné...

Orduan agertzen da kapitalismoak aurkezten duen irtenbidea, teknifikazioa eta ekoizpen lehiakorra, alegia. Arrantzaleak berreskuratu nahi ditu galdutako protagonismoa eta irudia, eta bizi maila berriak ezartzen duen erritimoak bere isla du ekoizpen-era kapitalistaren finantza-erakargarritasunean. Gero gerokoa.

Dagoeneko hasi dira somatzen ez oso ongi ulertutako eraldaketaren ondorioak eta gizarte gatazka ekoizpen arloan ageri ordeztualaren esparruan azaldu da. Gertaera hau beste toki batean aztertzen dut eta ez naiz hemen luzatuko.

Bukatzeko aurkeztuko ditut hiru hipotesi ezberdin baina elkarren menpe, hiru zeren hurrenez-hurren arlo ezberdinetatik fenomeno bera ukitzen duten, gizarte aldaketa alegia. Arlo horiek, ekonomia, inguru fisikoa eta inguru soziokulturala dira. Hiru arlo hauetan ematen dira, nire ustez, turismoak eraginda, ekoizpen-eren eraldaketak.

Arlo ekonomikoko hipotesiak hauxe dio:

Tradizionalki finkatuta eta orain krisian dagoen bertako ordenu ekonomikoan, Ekonomi Sistema Globalaren eraginek, bide ematen diote Turismoari –fenomeno sozio-ekonomiko gisa– ekoizpenaren gizarte harremanen funtzioak bete ditzan, horrela, pixkan-pixkanaka ekoizpen eratan eta esistentziarako baldintzetan eraldaketak sortaraziz.

Ekonomi sistema bereko bi ekoizpen-era ezberdinek elkarrekin dute harremanak eta bakoitzaren ezaugarrien arteko kontrasteek globalitatearen alde joko dute, bi sistemen arteko bateragarritasuna kolokan jarritz. Adib, turistaren esparru ekonomikoa ez da krisian eta turistaren irudia axolagabeak eta erosoak aurre egiten dio arrantzalearen lan egoerari...

Arlo fisiko-espazialakoa hauxe da:

Turismoaren mesederako, elite-hiriaren identitatea lortzeko asmoz, Administrazioak diseinaturiko hiri ereduak, ohiko identitate espazioak eta gizarte botere harremanen sistemaren eraldatzea ezezik artisau arrantzaleak jendaurreko botere eremuetatik zokoratzea ere eragiten du, gizarte gatazka gero eta nabarmenagoa izanik.

Gizabanakoen nahiz erkidegoen identitatea lurraldetasunean ere oinarrituta dago eta honetan ematen diren arlo fisikoen banaketa, banakoen arteko botere-harremanez ezarrita dago. Publikotasuna, prestigioa, gizarte maila, erakundeetan agerpena eta eragina... Espazialitatearen banaketaren isla dira. Baina espazialitate hori aldatzen ari da eta komunikapenerako espazioa ere bai. Hiri espazioaren bi interpretapenen aurrean gaude: truke balioarena eta erabiltze balioarena eta biok harreman sinbiotikoz elkarbizi dira orain arte (Gizarte gatazkari ezkutuan eutsiz). Oreka hori hautsi ahala arrantzale-gizartearen lerradura nabarmenki agertuko da eta honekin batera gizarte-gatazka.

Hirugarrena, arlo soziokulturalari dagokiona:

Arrantzale erkidegoaren erreproduzioaren baldintzak oinarrituta daude gizarte antolakuntza mailen arteko kontrasteekiko egokitzapenean. Haatik, turismoaren garapenaren eraginaren nolakotasunek sistema harkorraren egokitzapenerako ahalbideak gainditu dute eta egoera honek berak herriko botere eremutik arrantzalearen desagerpena ekarriko du.

Hiri barruan, arrantzaleen kokapen fisikoak eta euren jarduera ekonomikoak sortarazten dituzten mota ezberdinetako egoeren aurrean, hautazko erantzunak eskatzen dizkie. Denboran zehar erantzun hauek ezberdinak izan dira, baina beti ere beren biziraupena eta etekinik handiena lortu ahal izateko eginak izan dira.

Arrantzale erkidegoaren portaerak eta kanpoko eragileak elkar eragin dute. Honetan datza, beraz, agokitze prozesuaren fenomenoak. Ez da, berriz, prozesu hau erabat homogeneo izan, bertan parte hartu duten gizabanakoen arteko botere-jardueraren ondorioa baizik, non erabakiak hartzeko ahalmena bakar batzuen esku baizegoen.


Hemen kokatu behar dugu turismoaren eragin zuzena, gertakari eragin-kortzat eta honen aurrean, botere-korrante nagusiak indarrean jarri zituen aukerek ahalbideratu zuten gizarte-sektoreen arteko harreman sinbiotikoa. Azken finean zenbait arrantzalek turismoatik jakin du ateratzen zenbait etekin, beren jarduera ekonomikoa baikorra eta gizarte mailan prestijiozko egoera bizi duen bitartean.

Hortaz, bada, Hondarribian izan badira egokitze prozesurako baldintzak, zergatik bada oraingo desoreka hori? Arrantzaleak bere estrategia adaptatiboa garatzen jakin ohi du eta gaurko egoera, estrategia egokitzaile hurrenkeraren ondorioa al da? Egokitzapena, nolako baliabide adierazgarrien bidez burutzen da?


Ikuspuntu diakroniko batetik ikusita konstatatzen dut turismoaren eraginaren aurrean erreproduzio gizarte-baldintzak bermatuta zeudela jarduera ekonomikoaren bidez. Hau da, bizimodu ezberdinen arteko bateraezintasunak kutsu ekonomizistako arrazoen azpian zeuden ezkuturik, baina bi muturren arteko harremanen egoera aldatu ahala (krisi ekonomikoaren garai batean emanda), esplizitoki nabarmendu dira giza harreman horien arteko krontaesanak.

Eskema orokorra


Ikerketaren objektua



Behaketa Unitatea



Hipotesiak



BIBLIOGRAFIA

- BRETON, Yvan (1981) "L'anthropologie sociale et les sociétés de pêcheurs. Réflexions sur le naissance d'un sous-champ disciplinaire", *Anthropologie et sociétés*, 5, 1.
- COMAS d'ARGEMIS, Dolors (1998) *Antropología económica*, Ariel Antropología. Barcelona.
- CHADEFAUD, Michel (1987) *Aux origines du tourisme dans les Pays de l'Adour. Du mythe à l'espace: Un essai de géographie historique*, Département de géographie et d'aménagement de l'Université de Pau et des Pays de l'Adour.
- EPALZA, Mikel et al. (1999) *Altxa! Mutillak Itsas gazteriaren aldizkaria. Le magazine des jeunes pêcheurs basques*, nº 6.
- GODELIER, Maurice (1976) *Funcionalismo, estructuralismo y marxismo*, Anagrama, Barcelona.
- GODELIER, Maurice (1989) *Lo ideal y lo material*, Taurus Humanidades, Madrid.
- MARTÍNEZ-VEIGA, Ubaldo (1989) *Antropología Económica*, Icaria, Barcelona.
- MORENO VIUDES, Amparo (1995) *Relaciones económicas y sociales de producción de la pesca artesanal en Torrevieja (Alicante, España)*, Instituto Municipal de Cultura de Torrevieja.
- PASCUAL FERNÁNDEZ, José (1991) *Entre el mar y la tierra, los pescadores artesanales canarios*, Sta. Cruz de Tenerife, Ministerio de Cultura Interinsular Canaria.
- PASCUAL FERNÁNDEZ, José (1991) *Antropología Marítima: Historia, ecología, organización social y cambio económico entre los pescadores*, Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación, Madrid.
- RUBIO-ARDANAZ, Juan Antonio (1994) *La Antropología marítima subdisciplina de la Antropología sociocultural*, Universidad de Deusto, Bilbao.
- RUBIO-ARDANAZ, Juan Antonio (1997) *La vida arrantzale en Santurtzi, cambios económicos y socioculturales entre los pescadores de bajura*, Excmo. Ayuntamiento de Santurtzi.
- SANTANA, Agustín (1997) *Antropología y turismo, nuevas hordas, viejas culturas?*, Ariel Antropología, Barcelona.